

03/2018 UDALEKO OSOKO BILKURA

2018KO EKAINAREN 25EAN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

Kepa De la Iglesia Sánchez (EAJ taldea)

Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M^a Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2018ko ekainaren 25ean arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta Pedro M^a Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziek ez dute ezin etorria adierazi.

1.- 2018KO MAIATZAREN 28AN OSPATUTAKO UDAL PLENOAREN BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2018ko maiatzaren 28ko udal plenoaren bilkuraren akta aho batez onartu da.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2018KO MAIATZAREN 17TIK EKAINAREN 15 BITARTE, 185 ZENBAKITIK 210 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

2018ko maiatzaren 17tik 2018ko ekainaren 15a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, udal batzarkideak jakinaren gainean geratuz.

3.- 2017 EKITALDIKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRARI ONESPENA.

Udal honetako Kontuen Batzorde Bereziak, 2018ko maiatzaren 15ean eginiko bileran, bere oniritzia eman zion 2017 ekitaldiko Kontu Orokorrari, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63.3. artikuluan ezarritakoa betez jendaurrean jarriz hamabost egunez; 2018ko maiatzaren 24ko 99 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez.

Epe horretan, interesatuek erreklamazio edo oharra aurkeztu ahal izan zituzten Anoetako Udalaren Sarrera Erregistro Orokorrean, bulego lanorduetan; ez da erreklamazio edo oharrik aurkeztu.

Alkateak 2017 ekitaldiko Kontu Orokorraren berri eman ondoren bozketara eramán du.

Aho batez onartu da.

Beraz, bozketaren emaitza ikusi ondoren erabakitzen da:

Lehena.- 2017 ekitaldiko Anoetako Udalaren Kontu Orokor propioa onestea.

Bigarrena.- 2017 ekitaldiko Anoetako Udalaren Kontu Orokorra, behin-betiko izaeraz onetsirik, Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea.

4.- ANOETAKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN EBALUAZIO ESTRATEGIKOAN ADIERAZITAKO INGURUMEN GAI GUZTIEI ERANTZUNA EMATEN DIEN DOKUMENTAZIOAREN ONESPENA.

- 2012ko apirilak 23ko Udalbatzaren akordio bitartez hasierako onarpena eman zitzaion Anoetako HAPO-ri.
- 2015eko urtarrilaren 26ko Udalbatzaren akordio bitartez behin behineko onarpena eman zitzaion HAPO-ri.
- Behin behineko onarpena egina zegoenean ikusi zen zenbait alderdi aldatzeko beharra (Modesto-Enea, Arautegi Orokorreko 119 eta 120 artikulua , 1-8 Planoak), eta aldaketa hori izapidetu zen: .
 - 2015eko irailaren 28ko Udalbatzaren akordio bitartez behin behineko onarpena eman zitzaion aldaketa horri, eta ondoren jendaurreko erakustaldia egon da.
 - Erakustaldian ez da alegaziorik egon.
 - Arkitekto aholkulariak 2015eko abenduaren 11-ko datarekin txostena egin du, bertan alegaziorik egon ez denez, aldaketa onartzea eta HAPOren espedientearekin jarraitzea proposatzen du.
- 2015eko abenduaren 16ko Udalbatzaren akordio bitartez behin behineko izaeraz 2015eko urtarrilaren 26ko Udalbatzaren akordio bidez onartutako Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa dokumentu osagarriari onarpena eman zitzaion.
- 2015eko abenduaren 16ko Udalbatzaren akordio bitartez ere Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren espedientearen aginduzko txostena eskatzea onartu zen, espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali baino lehen, honek behin betiko onarpena eman diezaion, hala badagokio.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak 2016ko

- urriaren 5ean izandako 4/2016 Osoko Bilkuran, aldeko irizpena eman zuen, zuzenketa batzuk egiteko baldintzapean.
- 2017ko martxoaren 27an ospatutako Udalbatzarraren Ohiko Bilkuran, Anoetako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Testu Bategina jasotzen duen dokumentua onartzea eta dokumentuaren lau ale Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honek behin betiko onartzeko.
 - 2017ko maiatzaren 29ko 604 sarrera erregistroa duen idatziaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasunerako eta Lurralde Antolaketarako Departamentuko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren arduradunaren ebazpena jakinarazi zitzaion Anoetako Udalari; ebazpen horren bidez, Anoetako Udalari Hiri Antolaketarako Plan Orokorraren espedientea itzultzea ebatzi zen, ebazpenaren azalpen zatian aipatutako kontuak zuzentzeko; ebazpenak ohartarazten zuen 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 91.4 artikuluan plana behin betiko onartzeko ezartzen duen hiru hilabeteko epea ez zela kontatzen hasiko zuzenketak egin bitartean.
 - Lehenik, espedientean ez zegoen jasota araudi hauetan eskatzen diren nahitaezko txostenak eskatu direnik:
 - 1998ko abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretuak, interes orokorreko aireportuen eta haien zerbitzu eremua antolatzekoak, bigarren xedapen gehigarrian; 2015eko irailaren 29ko 38/2015 Legeak, Trenbide Sektorearenak, 7. artikuluan, eta 2014ko maiatzaren 9ko 9/2014 Legeak, Telekomunikazioei buruzkoak, 35.2 artikuluan.
 - Anoetako Udalak 2017ko ekainaren 5eko 571, 572 eta 573 zenbakidun irteera erregistro zenbakidun idatzien bidez eskatu zituen aipatutako txostenak.
 - 2017ko uztailaren 10eko 805 sarrera erregistro zenbakidun idatziaren bidez Telekomunikazioei buruzko txostena jaso zuen Anoetako Udalak.
 - 2017ko irailaren 12ko 978 sarrera erregistro zenbakidun idatziaren bidez Trenbide Sektorearen txostena jaso zuen Anoetako Udalak.
 - 2017ko irailaren 25eko 1028 sarrera erregistro zenbakidun idatziaren bidez interes orokorreko aireportuen eta haien zerbitzu eremua antolatzeko txostena jaso zuen Anoetako Udalak. 2017ko urriaren 10eko 1094 sarrera erregistro zenbakidun idatziaren bidez aipatutako txostenaren txosten osagarria jaso zuen Anoetako Udalak.
 - Bigarrenik, espedientean ez zegoen 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 108. artikuluan aurreikusitako herritarren parte hartze programari eta hori gauzatzeari buruzko aipamenik.
 - 2017ko urriaren 11ko 1103 zenbakidun sarrera erregistro zenbakidun idatziaren bidez arkitekto ahokulariak Anoetako Plan Orokorraren izapidetzean eginiko parte hartze herritarraren inguruko txosten teknikoa aurkeztu zuen.
 - 2017ko azaroaren 21eko 1272 zenbakidun sarrera erregistro zenbakidun idatziaren bidez arkitekto aholkulariak Plan Orokorraren Testu Bateginaren zuzenketei buruzko txosten teknikoa aurkeztu zuen.+
 - 2017ko azaroaren 27an ospatutako Udalbatzarraren Ohiko Bilkuran Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren Testu Bategina onesteko proposamenari Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatutako zuzenketa eta izapide osagarriak eta Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren Testu Bategina jasotzen duen

dokumentuaren lau ale Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea onestu zen, honek

- behin betiko onarpena eman ziezaion.
- 2018ko maiatzaren 30eko 103 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa Departamentuko foru diputatuak proposatuta, 2018ko maiatzaren 15eko batzarraldian Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren iragarkia argitaratu zen, Udal Batzarrak 2017ko azaroaren 27ko bileran dokumentuaren arabera behin betiko onartzen da “Anoetako Hiri Antolaketako Plan Orokorra”; behin betiko onarpena ematen da, gainera, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak eginiko azken txostenean adierazitako baldintza ezarrita, 2016ko maiatzaren 10eko ingurumen eraginaren behin betiko txostenean ezarritako baldintzen betetze mailari dagokiona, eta erabaki honek berariaz adierazten du hura bete egin behar dela.
 - Anoetako Udalak, gehienez ere hiru hilabeteko epean, erabaki honen lehenengo paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen dituen dokumentazioa onartu eta Foru Aldundira bidali beharko du.
 - 2018ko ekainaren 13ko 637 zenbakidun sarrera erregistro zenbakidun idatziaren bidez arkitekto aholkulariak 2016ko maiatzaren 10eko ingurumen eraginaren behin betiko txostenean ezarritako baldintzak bete ahal izateko Plan Orokorren Testu Bateginaren zuzenketei buruzko dokumentazioa aurkeztu zuen.

Aztertu da Idazkariak 2018ko ekainaren 21eko datarekin egindako txostena.

2018ko ekainaren 21ean Anoetako Udaleko Hirigintza Batzordeak irizpena eman zuen.

Horiek guztiak ikusita, akordio hauek onartzen dira, eskubidez eta izatez korporazioa osatzen duten bederatzi zinegotzietatik bertaratu diren zazpi zinegotzien aldeko botoarekin, hau da legeak ezartzen duen gehiengo osoaren aldeko botoekin :

Lehena.- 2018ko maiatzaren 30eko 103 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa Departamentuko foru diputatuak proposatu, eta 2018ko maiatzaren 15eko batzarraldian Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren lehen paragrafoan adierazitako baldintza betetzen dituen dokumentazioa onartzea, Anoetako Hiri Antolaketarako Plan Orokorren behin betiko onarpenaren baitan Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak eginiko azken txostenean adierazitako baldintza ezarrita, 2016ko maiatzaren 10eko ingurumen eraginaren behin betiko txostenean ezarritako baldintzen betetze mailari dagokiona.

Bigarrena.- Onartutako dokumentazioaren lau ale Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honek behin betiko onarpena eman diezaion, hala badagokio.

5.- “EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO”: ERAKUNDE ADIERAZPENA.

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatu eta Bakarne Olano Manzano zinegotziak irakurri du ondorengo erakunde adierazpena:

“ Gipuzkoan bi hizkuntza ditugu ofizialak: euskara eta gaztelania. Begi bistakoa da, ordea, bi hizkuntzok ez daudela oreka egoera batean, ez esparru publikoan ez eta gizartean ere: gaztelania da nagusi. Uste dugu orain arteko ahaleginarekin bakarrik ez direla bi hizkuntzak parekatuko, indar gehiago jarri behar dugula hizkuntza-berdintasuna bultzatzeko; euskara lehenetsi behar dugula, alegia. Izan ere, gizarte-,

genero- eta hizkuntza-berdintasuna lortzea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udalen erronketako bat, eta, horrenbestez, horretara bideratutako urratsak egitea.

UNESCOrentzat ere munduko hizkuntza-ondarea zaintzea eta hizkuntza gutxituak garatu ahal izatea da mende honek duen erronkarik garrantzitsuenetako bat. Izan ere, 7.000 hizkuntza inguruk osatzen dute munduko hizkuntza-ondarea. Munduko biztanleen % 97k hizkuntzen % 4 hitz egiten du ama-hizkuntza gisa, eta biztanleen % 3k hitz egiten du hizkuntzen gainerako % 96a. Horrela, bada, hizkuntza gutxi batzuk dira nagusi munduan, hizkuntza txiki eta gutxitu askorekin elkarbizitzan.

Gipuzkoan 100 hizkuntzatik gora hitz egiten dira eta ikasi beharko dugu aniztasun hori egoki kudeatzen; baina bizikidetzaren osasuntsu baterako lehen urratsa euskara eta gaztelaniaren arteko elkarbizitza orekatua lortzea da.

Norabide horretan, euskara biziberritzeko beharrezkoa dugu norbanakoen, gizartearen eta administrazioen arteko ahaleginak uztartu eta elkar elikatzen jarraitzea -Eusko Jaurlaritzaren Eta Hemendik Aurrera Zer txostenak ere halaxe jasotzen du-, eta, era berean, premiazko zat jotzen dugu hizkuntza gutxituen aldeko hizkuntza-arau sozial berriei ere lekua egitea.

Guztion elkarlanari esker, euskararen normalizazio-prozesuak ibilbide oparoa izan du azken hamarkadetan, emaitza aipagarria da, baina, prozesu guztiek bezala, argi-itzalak ditu; bada pozik egoteko arrazoirik, baita kezkatzeko daturik ere.

2016. urtean egindako VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, ezagutzadatuak nabarmen egin dute gora azken hamarraldietan, baina erabilera ez da neurri berean hazi; Gipuzkoan bizi den 2 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 57,4 euskalduna da eta biztanleen % 73,3k euskara ulertzen du. Erabilera-datuak diotenez, aldiz, Gipuzkoan 16 urtetik gorakoak % 39,5k hitz egiten du euskaraz.

Datuon argitan, euskararen normalizazio-prozesua inflexio-puntuari dago, fase baten amaieran eta beste baten atarian. Aro berri horretan, agerikoa da erabileran jarri beharra dagoela indarra.

Euskararen ulermenari ez diogu behar besteko garrantzirik eman; izan ere, erabileraren korapiloa askatzeko gako nagusi bat ulermena da. Alegia, euskararen ulermenaren balioa azpimarratuz gero, ulermena erabat zabalduz gero, euskararentzat eta gipuzkoarrantzat erabilerarako eremu zabal eta emankorra zabalduko dugu.

Kontuan hartzeko beste datu bat: Gipuzkoako udalerrri gehienetan ulermena % 80tik gorakoa da, eta gainerakoetan biztanleen % 60k baino gehiagok ulertzen du euskara.

Euskaraldia, 11 egun euskaraz, azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak, beste hainbat eta hainbat eragilerek elkarlanean, abian jarri dute Euskaraldia ekimena. Gure udalerrria ere buru-belarri sartu da, eta ekinbidea burutzeko batzordeak lanean dihardu.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat gauzatzera gonbidatuko ditugu herritarrak. Ariketa horren subjektuak 16 urtetik gorako helduak

izango gara, eta 11 egunez hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, indarra ulermenean jarrita. Bi subjektu-mota bereizi dira: ahobizi eta belarriprest.

Ahobiziek, 11 egun horietan, euskarari eutsiko diote solaskideak euskaraz ulertzen duen guztietan, eta, belarriprestek, aldiz, solaskideak beraiekin euskaraz aritzera gonbidatuko dituzte, nahiz eta belarriprestak berak euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.

Ekimenaren helburua hau da, besteak beste: ariketa praktiko horren bidez ikusaraztea eta bizi-araztea hizkuntza-ohiturak alda ditzakegula, eta, ahal dela, 11 egun horiek igaro eta gero, hizkuntza-praktika berri horiei eustea.

Euskaraldia Gipuzkoako Foru Aldundian eta udaletan

EAEko euskararen erabilera normalizatzeko V. Plangintzaldiak honako datu hauek jasotzen ditu amaierako ebaluazio-txostenean:

- Gipuzkoako ordezkari politikoek % 90,4 gai da euskara ulertzeko eta % 86,8 euskaraz hitz egiteko.*
- Gipuzkoako langile publikoen % 86,8k ongi edo oso ongi hitz egiten du euskaraz.*

Aipatutako datuak eta Gipuzkoako egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, erabileran eragiteko baldintza egokiak ditugu Gipuzkoan. Euskaraldia, ostera, abagune aproposa dugu Gipuzkoako erakunde publikoek eta arduradun politikoek dagokigun erantzukizuna geure gain hartu eta eredugarritasunez joka dezagun, erabileran urrats berriak egin ditzagun.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

Anoetako Udalak honakoa adierazi nahi du:

- Udalbatzak bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.*
- Ordezkari politikoen egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta ahobizi eta belarriprest gehien aktibatzeke urratsak egingo ditugu, arduradun politikoak zein langileak izan.*
- Ahobiziek euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.*

- *Belarriprestok gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.*
- *Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible egiteko eta etorkizunean eutsi ahal izateko.*
- *Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, udal barruan ez ezik, udalerrian ere herritarrek gonbidatuko ditu Euskaraldia ekimenean parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu.*

Udalak bat egiten du ekimena elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin Gipuzkoan, ahalik eta udal eta mankomunitate gehienetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Batzar Nagusietan, lurralde mailako politika bateratu bati begira.”

Aipatutako erakunde adierazpena bozketara eraman da eta aho batez onartu da.

6.- GALDE ERREGUAK.

Bat ere ez.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean; guzti honetaz, nik, Bitarteko Idazkariak, fede ematen dudalarik.